

GRADU AMAIERAKO LANA

Pedagogiako Gradua


HEZKUNTZA,FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA UPV /EHU

[NMnia.ut.iium](http://nmnia.ut.iium)



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



AURKIBIDEA 2022/23

1. GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRAL) XEDEA ETA HELBURUAK.....	3
2. IZEN EMATEA ETA DEIALDIAK.....	4
3. GAIK ETA ZUZENDARIAK AUKERATZEKO PROZEDURAK.....	5
4. LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK.....	5
5. GRALa EGITEKO ETA ZUZENTZEKO PROZESUA.....	8
6. LANAREN DEFENTSA EGITEKO BALDINTZAK.....	9
7. EPAIMAHAIA.....	9
8. GRALaren AURKEZPENA ETA DEFENTSA.....	9
9. GRALaren EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA.....	10
10. EPAIMAHAIK ERATZEKO DEIA.....	10
11. GRALaren ARTXIBOA ETA KONTSULTA.....	11
12. KRONOGRAMA.....	11
13. ERANSKINAK.....	13

1. GRADU AMAIERAKO LANAREN (GRAL) XEDEA ETA HELBURUAK

1. Gradu amaierako lana (GRAL) gauzatzeko, ikasleek banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar dute, zuzendari baten edo gehiagoren gidaritzapean, eta bertan gradu ikasketa aldi burututako prestakuntza gaiak eta lortu dituzten ahalmen, gaitasun eta trebetasunak bildu eta garatuko dira (Ikusi GRALaren [EHU/UPVko Araudia](#), BOE 2012 ekainaren 19). Gradu azken mailako irakasgaia da, 12 ECTS kreditukoa.
2. GRALa titulazioarekin lotutako gaitasun orokorrak aplikatzeari begira egingo da, baita datu garrantzitsuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko trebatzeari begira ere. Ikasleak hezkuntzari, gizarteari, zientziari, teknologiarik edo etikari loturiko gai nabarmenei normalean, bere ikasketa gaiei lotutakoei- buruzko gogoeta egin eta iritzia eman dezan eta gogoeta eta iritzi horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izan daitezzen.
3. GRALa defendatu eta ebaluatzeko, ikasleak gaitasunak izan beharko ditu ikasketa planeko gainerako gai guztiak eta, hortaz, GRALari dagozkion kredituak kenduta, gradu titulua lortzeko beharrezkoak diren gainerako kreditu guztiak eduki beharko ditu.
4. Lana egin, aurkeztu eta defendatzerakoan, gradu irakaskuntzan erabili izan diren hizkuntzetako edozeinetan erabili ahal da.
5. Irakasgai hau eginik, ikasleek eskuratuko dituzte goi hezkuntzarako kualifikazioen espainiar markoan agerturiko gaitasunak, titulazioaren gaitasun orokorrak eta GRALeko gaitasun espezifikoak.

Pedagogiako gradu gaitasunak

GG 1. Pertsonak, taldeak, testuinguruak eta hezkuntza erakundeak analizatu eta diagnostikatu, jardun profesionalaren zenbait arlotan egin beharreko esku hartze pedagogikoa finkatu eta garatzeko helburuak.

GG2. Garapen profesionala sustatuko dituzten hezkuntza proposamenak planifikatu eta antolatu, berrikuntza plan eta programen garapenen ondorioz sortutako premiei behar bezala erantzuteko helburuak.

GG3. Hezkuntza prozesu eta programak diseinatu, garatu eta balioestea, era anitzeko testuinguru eta kidegoetan baliatu beharreko gizarteratze, kalitate eta zuzentasun irizpideei jarraiki.

GG4. Hezkuntza baliabideak eta erakundeak antolatu eta gestionatu, berorien hoberentzearren. Honez gain, euskarri ezberdinetarako sormenezko materialak ekoiztea, pertsonen eta kidegoen hezkuntza eta gizartearen alderdian garatzeko aukera eskainiz.

GGS. Hezkuntza gaietarako jakintza kritiko adierazgarria ezagutu, interpretatu, ikertu eta eraikitzea, iritziak eta orientazioak emateko gai izan daigin, zientzia, politika, gizarte eta etikaren inguruko gai funtsezkoen inguruko hausnarketa egin eta erabakiak hartu ahal izatea barne, giza eskubideen perspektibatik.

GG6. Pertsonak elkar, horizontalki eta enpatikoki lotu eta komunikatzeko baldintzak sortzea, gizarteratzerakoan eraginkorrak izan ahal izateko (adi egon eta entzutea, negoziazioa, kontsentsua eta akordio eza, etika) ele eta kultur aniztasuneko egoeretan.

GG7. Proposamenik egin eta argumentatzea, bai idatziz nola ahoz, zientzi irizpide sistematikoak erabilia eta jasotzaile entzule espezializatu zein ez espezializatu delarik, beti ere erabakien hartzea erraztearren.

GG8. Ikaskuntzarako gaitasunak garatzea, bai eta pertsonal, sozial eta profesionalak ere, pedagogoa arlo profesional ezberdinetan, autoenpleguan barne, txertatuko bada.

GRALeko gaitasun espezifikoak

GE1: Ahoz eta idatziz adieraztea jakite teoriko praktikoan integratutako ikuspegiak.

GE2: Jasotako jakintza proiektu batean batu eta testuinguruari egokitzea. **GE3:** Proiektuaren bideragarritasun eta aplikagarritasuna segurtasunez komunikatzea.

GE4: Ekimenerako gaitasuna garatzea.

2. IZEN EMATEA ETA DEIALDIAK

1. Gradu amaierako lanerako matrikula unibertsitateak horretarako ezarriko lukeen matrikula egiteko epe orokorraren barruan eginen da edo unean uneko ikasturte akademikoan zehar eta behin ikasleak gradu amaierako lanaren defentsa egin ahal izateko betebeharrak bete eta gero.
2. Matrikulak bi deialdi ofizialetarako eskubidea emango du ikasturte bakoitzean. Ezarritako bi deialdietan lana defendatu ez duen edo gainditu ez duen ikasleak matrikula egin beharko du berriro hurrengo ikasturtean.
3. Ikasleek GRALa zein hizkuntzatan egin eta defendatu nahi duten zehaztuko dute.
4. Ikasleek GRALak gestionatzeko programa informatikora sartu ahal izango dute honako baldintza bi hauek betetzen badituzte:
 - a) Gradu lehenengo mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako 168 kreditu gaindituta izatea gutxienez, eta
 - b) Gradua bukatzeko beharrezkoak diren irakasgai guztietan matrikulatuta egotea.
5. Ikastegiak, alde aurretik, GRALetarako proposatutako arloak edo gaiak argitara emango ditu. Ikasleek beren interesekoak diren gaiak aukeratu beharko dituzte, hogeituztira.

3. GAIK ETA ZUZENDARIAK AUKERATZEKO PROZEDURAK.

- 1.- GRALari esker, ikasleak modu integratuan erakutsiko ditu Pedagogiako graduaren tituluari loturiko gaitasunak. Horretarako, lagungarriak izango dira PRACTICUMean egindako lana, eta graduari zehar izandako DILAN ezberdinak..
- 2.- GRALa egiteko mota ezberdinak planteatzen dira, ikasleen aukeran:
 - a.- Titulazioan sartuta dauden sailek urtero eskaintzen dituzten gaietako batetik abiatuta egindako sakontze lana. Honetarako, akademi ikasturte bakoitza amaitu baino lehen, graduaren jarraipenerako batzordeak onartu eta argitara emango du sailek proposatutako gai eremuen zerrenda.
 - b.- Dekanotzaren, erakundeen edo enpresek proposatutako gai edo proiektuak.
- 3.- Ikasturte hasieran, ikastegiak deialdi bat argitaratuko du GRALak gestionatzeko programa informatikora sartzeko baldintzak betetzen dituzten ikasleek 10 egun balioduneko epean hogeitau aukera ditzaten, lehentasunaren arabera ordenatuta. Ondoren, ikastegiak esleipenen behin-behineko zerrenda argitaratuko du. Hauek graduako 3. Ikastarora arteko espediente akademikoaren arabera ordenatuko dira.
- 4.- Esleipenen zerrenda argitaratzen denetik aurrera, 3 egun balioduneko epea egongo da zerrendari alegazioak egiteko edo deialdi horretan GRAL bat eskatzeko aukerari uko egiteko. Ondoren, 5 egun balioduneko epean, ikastegiak GRALen esleipenen behin betiko zerrenda argitaratuko du.
- 5.- Esleipena pedagogiako gradu amaierako lanen batzordeak gainbegiratuko du.

4. LANAREN EGITURA ETA LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO JARRAIBIDEAK

4.1. GRAL mota ezberdinak aurreikus daitezke: ikerketa ereduari jarraitzen dion lana; esku-hartze proposamena; hezkuntza material/baliabideen edo prototipo/proiektuen diseinua; Pedagogiari loturiko gai baten azterketa teorikoa... Adibide madura, mota horietako biren egitura posibleak zehazten dira behean:

A Eskema: ikerketaren egitura klasikoa jarraituz gero:

1. Laburpena (gehienera 100 hitz) eta, gehienez, 5 deskriptore, lanaren indexazioa egin ahal izateko. Deskriptoreak. hezkuntzaren europar thesaurus batetik aterako dira
2. Aurkibidea.
3. Sarrera (lanaren motibazioa, justifikazioa, helburu orokorrak)
4. Oinarritzatze teorikoa
5. Metodologia
6. Emaizak
7. Ondorioak (eztabaida, auto-hausnarketa, gomendioak, hobetzeko proposamenak, esku-hartze ildoak)
8. Erreferentzia bibliografikoak, arau estandarizatuen arabera (APA formatua).
9. Eranskinak.

B Eskema: errealitatean antzemaniko beharretara erantzuteko egindako proiektua, esku-hartzea edo proposamena eginez gero:

1. Laburpena (gehienera 100 hitz) eta, gehienez, 5 deskriptore, lanaren indexazioa egin ahal izateko. Deskriptoreak hezkuntzaren europar thesaurus batetik aterako dira.
2. Aurkibidea
3. Sarrera (lanaren motibazioa, justifikazioa, helburuak)
4. Garapena: Lana egiteko eraman den prozesua; oinarritze teoriko-akademikoa; proiektua, esku-hartzea edota sortutako baliabidea kokatzen deneko testuinguruaren deskribapena; proposamenaren diseinu-zehaztapenak; aurrera eramateko/aplikatzeko aukera izan denean, kanpo-contrastearen, aplikazioaren edota martxan jartzearen ebaluazioaren prozesua eta emaitzak. Ondorioak, helburuekin bat eginez, garatutako prozesua eta lortutako emaitzen aipamenak eginez. Baita, proiektuak etorkizunean izan dezakeen bilakaera eta egokitzapenaren inguruko gogoeta ere.
5. Erreferentzia bibliografikoak, arau estandarizatuen arabera (APA formatua)
6. Eranskinak

Jarraibide hauek erabiliko dira GRALa idatzizkoa denean. GRALak beste formatua baldin badu (blog, bideoa, komikia...), ikuspegi sortzaileago edo ekoizpen bisuala badu, jarraibideak moldatu egingo dira.

4.2. GRALa 30 (10.000 hitz) eta 50 orrialde (18.000 hitz) bitartekoa izango da gutxi gorabehera, bibliografia kontutan hartu gabe.

4.3. Alderdi formalak zaindu egin beharko dira. Edukia egokiro eta logikoki antolatuta egongo da; hautatutako gaiaren alderdi guztiei helduko zaie; idazkera zuzena izango da, bai gramatikari dagokionez, bai semantikari dagokionez; edukiak argiro adieraziko dira, eta ideien arteko lotura ondo islatuta geratuko da. Horrez gain, lana egiteko erabili den bibliografia APA arauak jarraituz jaso beharko da.

4.4. Lan idatziaren aurkezpenak ezaugarri hauek eduki beharko ditu.

a) DIN A4 orritan idatziko da, Times Roman 12 letra tipo arruntaz.

b) Azalean honako hauek jasoko ditu:

- Gradu amaierako lana
- Ikastegiaren izena
- UPV/EHUren logotipoa
- Lanaren izenburua
- Ikaslearen izen-deiturak
- Lanaren zuzendariaren izen-deiturak
- Defentsarako deialdia

4.5. Bibliografia, erreferentziak, zitak: APA arauak jarraituko dira (ikus EHU/UPVko Liburutegiak argitaraturiko azken bertsioa, "Gradu Amaierako Lanak egiteko prestakuntza materialak" atalean (<https://www.ehu.eus/ehusfera/biblioteka/2020/03/30/gral/>)). Orokorrean da interesgarria esteka hau GRALerako, materiale interesgarriak baitaude lana burutzeko: katalogoan eta datu-baseetan informazioa nola bilatu, erreferentziak nola kudeatu eta aurkeztu, etab.).

4.6. Plagioa. <https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteka/plagioa-eta-onestasan-akademikoa>. Hemen ere ikus EHU/UPVko Liburutegiaren "Gradu Amaierako Lanak egiteko prestakuntza materialak" atalean (<https://www.ehu.eus/ehusfera/biblioteka/2020/03/30/gral/>).

4.7. Gure Fakultateak **EKOSKAN** Ingurumena Hobetzeko Planean parte hartzen duela gogoraraziz, GRALak aurrera eramateko garaian kontutan hartu beharko lirateke ondoko neurriak: paper zuriaren ordez paper birziklatua eta kolorerik gabea erabiltzea; bi aldeetatik eta zuri-beltzean inprimatzeko aukera lehenestea; plastikoaren erabilera ahalik eta gehien murriztea.

5. GRALa EGITEKO ETA ZUZENTZEKO PROZESUA

1. GRALaren zuzendaria izango da graduan eskolak ematen dituen irakaslea edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa.
2. GRALak zuzendari bat baino gehiago izan ahalko ditu.
3. Unibertsitateari lotutako doktoreek ere zuzendu ahalko dituzte GRALak, baldin eta zuzendarikide bat badago, graduan eskolak ematen dituen sailen batekoa, edo gradua irakasten den ikastegiari atxikitakoa.
4. Ikasleak GRAL osoa edo horren zati bat UPV/EHU ez den erakunde baten egiten badu, praktika hitzarmen baten barruan, GRALa unibertsitateaz kanpoko pertsonak zuzendu ahalko dute zuzendarikide gisa. Kasu horretan beste zuzendarikideak bete beharko ditu aurreko ataleko baldintzak.
5. Sail bakoitzak erabakiko du bere irakasleek zuzenduko duten GRAL kopurua, beti ere sailari dagozkion GRALen gehieneko kopuruaren barruan.
6. GRALaren zuzendariak ikaslearekin egin beharreko lanean izango dituen eginkizunak ondoren zehazten diren elkarren segidako faseetan zehaztuko dira:
 - a.- **Aurretiko fasea:** Fase honetan egin beharreko lanaren berri emango zaie ikasleei eta fasea bukatuko da, adjudikazio prozesuak amaituta, halakorik balegokio, beharrezkoak diren agiriak sinatu eta aurkezten direnean "Gradu Amaierako Lanaren gaiaren definizioan" (1. eranskina) adierazi bezala. Agiri horiek aurkeztean erabat finkatuta geratuko da irakasle eta ikaslearen arteko lankidetzak.
 - b.- **Gauzatze fasea:** Fase honetan ikasle bakoitzari orientazioa emango zaio eta lana egiteko prozesuaren jarraipena egingo da, lana egiteko egutegia betez eta betearaziz. Horretarako, zuzendariak eta ikasleak hiru tutoretza izan beharko dituzte gutxienez. Fase hau amaituko da ikasleak Gradu Amaierako Lana ematen dionean zuzendariari.
 - c.- **Itxiera fasea:** Zuzendariak ikasleari, lana defendatu aurretik, txostena sinatuta igorriko dio (2. Eranskina) eta ikasleak lanaren bertsioa digitalarekin batera plataformara igoko du. Ikasleak zuzendariari GRALaren 3 kopiak emango dizkie eta azken honek, epaimahaiko kideei banatuko dizkie, honetarako diren epeetan.

6. LANAREN DEFENTSA EGITEKO BALDINTZAK

1. GRALa tituluari loturiko gaitasunak ebaluatzeraz orientatuko da eta banaka egin beharko da. Idatzitako GRALa 30 eta 50 orrialde arteko luze izango da eta ahozko defentsa publikoa izango da, 15 minututako iraupenez.
2. Aipatutako lanak behin eginda eta epeak agortuta, GRALa defendatu behar da. Publikoa eta epaimahaiaren aurrean egin beharreko defentsa egin ahal izateko, ikasleak aurretik baldintza batzuk bete behar ditu, horietako batzuk zehaztu dira dagoeneko, eta, laburbilduta, honako hauek dira:
 - a) Gauditua izatea pedagogiako ikasketa planeko gainontzeko irakasgaietako kreditu guztiak. GRALa aurkeztu ahal izateko, ikasleak "Gradu Amaierako Lana" irakasgaiaren matrikulatuta egon behar du, hots, egiaztatuta egongo da lana aurkeztu aurretik ikasketa planeko gainerako irakasgaiak gaudituta dituela.
 - b) GRALeko zuzendariak irakurketa eta defentsa egiteko txostena ematea (2. eranskina).Lana idazkaritzan eta GRALeko zuzendariari ematea. Ikasleek matrikula eginda daukaten ikastegiko idazkaritzan aurkeztu beharko dute GRALa euskarri informatikoan (PDF formatuan), lanaren izaerak bestelako formatuarekin eskatzen ez badu behintzat. Honez gain, ikasleak GRALaren hiru ale emango dizkio paperean zuzendariari, epaimahaiko kideei banatzeko.
3. Ezin izango da gradu amaierako lanaren defentsa egin hiru baldintza horiek bete gabe.

7. EPAIMAHAIA

1. GRAL bakoitza lan horiek ebaluatzeko eraturako epaimahai batek ebaluatuko du.
2. Epaimahaiak eraturako dira Ikastegiko Batzarrak, edo, hala dagokionean, Gradu Amaierako Lanen Batzordeak ezarritako moduan, matrikulatutako ikasle kopurua eta egin diren GRALen gaiak kontuan hartuta. Titulazioko irakasle guztiei epaimahaietan parte hartzeko bidea emango zaie.
3. Epaimahai bakoitza hiru kide titularrek osatuko dute, denak ere graduako titulua irakasten den ikastegiko irakasleak.
4. Epaimahai bakoitzean epaimahaiburu bat eta idazkari bat egongo dira. GRALeko zuzendaria izango da epaimahaiko burua.

8. GRALaren AURKEZPENA ETA DEFENTSA

1. Epaimahaiko kideak behin izendatuta, ikasleak lana aurkeztu eta defendatu beharko du.
2. Ikasleak aurrez aurre defendatu beharko du GRALa. Defentsa modu askotara egin daitezke, betiere ikasleak zein zuzendariak egin ditzakeen proposamenaren arabera.
3. GRALaren defentsa jendaurrean egingo da.
4. Lanaren defentsa graduaren eskolak emateko erabili diren hizkuntzetako edozeinetan egin ahalko da.
- S. Ikasleak behar dituen ikus-entzunezko baliabideak izango ditu eskura.

6. Ikasleak, gehienez, 15 minutu izango ditu ahozko defentsarako eta GRALaren helburuak, metodologia, edukia eta ondorioak azaldu beharko ditu tarte honetan.
7. Azalpena behin amaituta, epaimahaiak, proiektuaren kalitatea epaitu aldera, 15 minutu izango ditu GRALari buruz eztabaidatu eta lanari buruzko galderak egin eta argibideak eskatzeko.
8. Ondoren, epaimahaiak GRALa ebaluatzeari ekingo dio.

9. GRALaren EBALUAZIOA ETA KALIFIKAZIOA

1. Kalifikazioaren arduradunak izango dira irakasle zuzendaria eta ahozko defentsari dagokion epaimahaia. Kalifikazioa honako alderdi hauei lotuko zaie:
 - a) Zuzendariaren balorazioa, lanketa prozesuan zentratua (%15),
 - b) Emaidza (epaimahaiak baloratua) (%65).
 - d) Ahozko aurkezpena eta defentsa (epaimahaiak baloratua) (% 20). Ikus ebaluazio errubrika (3. Eranskina)
2. Defentsaren ostean, epaimahaiko idazkariak kalifikazioen akta beteko du. Akta hori epaimahaiko hiru kideek sinatuko dute eta ohiko bideak erabiliz egin eta jasoko da.
3. Ikasleak gainditzen ez badu, epaimahaiak lana hobetzeko iradokizunak jasotzen dituen txosten bat helaraziko dio ikasleari, lana berriz ebaluatzen denerako.
4. Kalifikazioa Otik 10era bitarteko zenbakizko eskalan emango da, hamartar bakarrarekin, eta letraz ere adieraziko da:
Deialdi batean lana aurkezteko eskubideari uko eginez gero, Ez Aurkeztua adierazi beharko da.
5. GRALen azken kalifikazioen berrikuspenak edo erreklamazioak unibertsitateko ebaluazio arauari jarraiki egingo dira, baina ebaluazioa epaimahaiak egiten duenez, ebaluazioaren lehenengo berrikuspena epaimahaiak berak egingo du eta ondoren ikastegiko Erreklamazio Batzordeak emango du ebazpena; ebazpen horren kontra gorako errekurtsioa aurkeztu ahaliko zaio unibertsitateko errektoreari.
6. GRALeko kalifikazioak, defentsa egin, eta hilabetea iragan aurretik pasako dira aktara. Nolanahi ere, GRALaren kalifikazioa urriaren 31 baino lehen agertu beharko da lanean matrikulatutako ikaslearen espedientean.

10. EPAIMAHAIK ERATZEKO DEIA

Hiru deialdi izango dira ikasturtean zehar::

1. Lehenengo lauhilekoa bukatzerakoan- ohiko deialdia- (otsaila).
2. Bigarren lauhilekoa bukatzerakoan -ohiko deialdia- (ekaina/uztaila).
3. Ondorengo ikasturte hasieran -ez ohikoa deialdia - (iraila, ohiko deialdian aurkeztu ez diren edo gainditu ez dutenentzat).

11. GRALen ARTXIBO ETA KONTSULTA

1. GRALa Jabetza Intelektualari buruzko Legearen babespean dago. Ondorioz, jabetza intelektualeko eskubideen titularra lana egin duen ikaslea da, eta hark ezin izango dio eskubide hori inori utzi lana epaimahaiaren aurrean defendatu eta GRALaren behin betiko kalifikazioa lortu arte.
2. Ikastegiak euskarri informatikoan artxibatuko du lana.

12. KRONOGRAMA

EGUTEGI OROKORRAREN LABURPENA

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2022-23 ikasturteko lehen asteetan.	Gaien zerrenda argitaratzea Fakultateko web orrian.
2022 irailak 12-16	Gradua amaitzeko GRAL lana bakarrik dutenek (practicuma eta beste ikasgai guztiak aurreko ikasturteetan gainditu dituztelako), matrikula egiteko epea.
2022 urriak 03-07	GAURen sartu eta izena ematea (gaiak-zuzendariak) aukeratzea.
2022 urriak 12-17	Behin behineko esleipena.
2022 urriak 18-21	Behin behineko esleipenari alegazioak.
2022 urriak 24	Behin betiko esleipena.
2022 abenduak 16	“GRALaren deskribapena” dokumentua aurkeztea (1go eranskina). Ikaslea eta zuzendariaren arteko hitzarmena.
2023 ekainak 19-21	Zuzendariaren txostena sinatuta (2. eranskina) eta lanaren bertsio digitala plataformara igotzea. https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/pedagogiako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula
2023 ekainak 22-23	Matrikula egitea eta defentsa eskatzea. Gaur
2023 uztailak 3-4*	GRALa defendatzea.

OHARRA

*1., 2., 3. mailako ikasgai baten bat edota 4. mailako 1. lauhilekoren bat gainditu gabe baduzu (ez-ohiko deialdian aurkeztekoa), eta GRALa uztailleko ohiko deialdian aurkeztu nahi baduzu, **ikasgai horren/horien ez-ohiko deialdia aurreratzea** eskatu beharko duzu idazkaritza nagusian [inprimaki](#) honen bidez, honako epearen barruan:

- **Martxoaren 1etik 31ra.** Ekaina-uztailako ez-ohikoak maiatzara.

Aurreratzeko gehienez 18 kreditu eskatu ahalko dira eta eskaera bideratzean 210 kreditu gaindituta izan beharko dira.

2023ko otsaileko deialdian aurkeztuko direnentzako egutegia. Graduako kreditu guztiak urtarrean osatzen dituzten ikasleek ondorengo egutegia bete ahal izango dute, hala nahi izanezker:

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2023 otsailak 9	Zuzendariaren txostena (2. eranskina) eta lanaren bertsio digitala plataformara igotzea. https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/pedagogiako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula
2023 otsailak 10	Matrikula egitea eta defentsa eskatzea. Gaur
2023 otsailak 16-17	GRALa defendatzea.

2023ko iraileko deialdian aurkeztuko direnentzako egutegia.

EGUTEGIA	EPEAK ETA EGINKIZUNAK
2023 irailak 12-13	Zuzendariaren txostena (2. eranskina) eta lanaren bertsio digitala plataformara igotzea. https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/pedagogiako-gradu-amaierako-lanaren-matrikula
2023 irailak 14-15	Matrikula egitea eta defentsa eskatzea. Gaur
2023 irailak 21-22	GRALa defendatzea.

PEDAGOGIAREN GRALerako KRONOGRAMA OROKORRA

	Iraila	Urria	Azaro	Aben.	Urtar.	Otsa.	Martz.	Apir..	Mait.	Ekaina	Jztaila
1. GRAL bakarrik duten ikasleek lana matrikulatzea	X										
2. Gaien zerrenda	X										
3. Izena emateko epea		X									
4. GRALerako gaia aplikazioaren bidez eskatzea		X									
5. Behin betiko		X									
6. "GRALaren deskribapena" dokumentua aurkeztea				X							
7. Lana egin eta tutoretza-prozesua				X	X	X	X	X	X		
8. Tutorearen baimena, lana aurkeztu eta defendatzeko										X	
9. GRAL igotzea eta matrikula										X	
10. GRAL DEFENTSA											X

GRADU AMAIERAKO LANAREN DESKRIBAPENA (IKASLE ETA TUTOREAREN KONTRATUA) DESCRIPCION DEL TRABAJO FIN DE GRADO (CONTRATO TUTOR/A- ALUMNO/A)

IZENA	DEITURAK
NOMBRE	APELLIDOS
N.A.N.	
D.N.I.	
ZUZENDARIAK	
DIRECTORAS/ES	

BEHIN-BEHINEKO TITULUA/ TITULO ORIENTATIVO

LABURPENA (GEHIENERA, 15 LERRO)/ RESUMEN (Máximo 15 líneas):

ADOSTASUNA/ CONFORMIDAD

Data/Fecha

Ikaslearen sinadura/Firma del alumno/a

Zuzendariaren sinadura/Firma del Director/a

ZUZENDARIAREN TXOSTENA

INFORME DE LA DIRECTORA O DEL DIRECTOR

IZENA	DEITURAK
NOMBRE	APELLIDOS
N.A.N.	
D.N.I.	
TELEFONOA	POSTA ELEKTRONIKOA
TELÉFONO	CORREO ELECTRÓNICO
GRADUA	
GRADO	

GRALeko DATUAK / DATOS DEL TRABAJO Fin de Grado

IZENBURUA
TÍTULO
ZUZENDARIAK
DIRECTORAS/ES

Txostena / Informe

Data/Fecha

Zuzendariaren Sinadura/Firma Director/a

	Adierazpen idatzia (1'25 p.)	Bibliografiaren erreferentzia eta aipamen arauak bete ditu, APA arauak jarraituz.				
		Ideiak eta argudioak era ulergarrian komunikatu ditu, ezarritako irizpide formalekin bat etorrira				
		Euskararen edota gaztelaniaren erabilera inklusiboa egin du				
		EMAITZARI EMANIKO KALIFIKAZIOA				
Ahozko aurkezpena (epaimahaikide guztiek baloratu beharrekoa) 2 puntu		Ideiak eraginkortasunez adierazi ditu, hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren arteko koherentziari utsita				
		Hitzezko eta ez-hitzezko adierazpena entzuleriari egokitzeko gai izan da (begirada, bolumena, tonua, gorputz-adierazpena, keinuak, hitz betegarriak ez erabiltzea...).				
		Euskararen edota gaztelaniaren erabilera inklusiboa egin du				
		Testuinguruaren beharren baitan kudeatu ditu denbora eta erritmoa				
		Euskara eta/edo gaztelaniaren erabilera testuinguru akademiko eta/edo profesionalera egokitu du				
		Epaimahaikideek egindako galderei egoki erantzun die argumentatzeko gaitasuna adieraziz.				
		Laguntza euskarriak eta materialak erabili ditu, informazioa hobeto ulertu ahal izateko.				
		AHOZKO AURKEZPENARI EMANIKO KALIFIKAZIOA				
Proposatzen den kalifikazio OSOA						

1: Desegokia-Gutxi (0-4)

2: Oinarrizkoa-Nahikoa (5-6)

3: Oso Ongi (7-8)

4: Bikaina (9-10)